

Antxiñako fotografixak



Kofradixako sekretarixo-maiordomuak

Oñatiko **Korpus** eguneko prozosiñuan parte hartzen dauen pertsona eta elementuen artian batzuk oso nabarmenak eta ezagunak dira, mundu guztiak kalian ikusten dittuelako: esate baterako, anda gaiñian faten diran hainbat santuren irudixak; gora eta behera eten barik ibiltten diran dantzariak; **Minerva** kofradixako hamabi apostoluak, Jesukristo eta San Migel; eta, jakiña, palixopeian parrokuak eruatzen dauen Jaunaren kuxtodixia, egun horretako jaixaren jatorrixa eta berezko arrazoirik nagusixena. Txistulariak eta musika-bandiak be protagonismo haundixa eukitten daue Korpusaren inguruko ospakizun askotan. Beste batzuk, osterax, ezkutu samarrian geraketan dira, nahiz eta jai ikusgarri horri bihar besteko dizdiza emuteko oso inportantiak izan. Bestiak beste, gogoratu gura nittuke, bezperako gupasiaren ondoren, kaliak garbiketax eta gero ixaak botaten jarduten dauein langilliak; santuak itxuraketan edota karriaitten ibiltten diran emakume eta gizakumiak; **Minerva** kofradixako hamalau kidiak jazten eta orrazketan dittueiñak; Santa Anako monjak eta koruko kantoriak; eta itxafleruak botaten dittuein aguazillak.

Baiña gaurkuan sasue batian eragin haundixa eukan beste figura bat be aittaketia pentsau dot: **Minerva** edo Sakramentu Santuaren ermandadiaren **sekretarixo-maiordomuaren** zeregiñak beteten eben pertsoniarena. Azkenengo hamarkada honeittan gauzak asko aldatu badira be, lehenago oso garrantzizkua izan zan

kargu hori kofradixa horren funtzionamentu onerako. San Migel parrokiakaxo kabildoko kide batek izaten eben horren kargua. Etziran bakarrak izan, baiña gure goguenian bi abadek, batez be, jardun euen horretan denbora askuan: Kale Zaharreko hasieran bizi zan **Migel Diez Umerez** bata, eta Atzeko kaleko goixenekoxo **Jose Mari Agirrebaltzategi Untzuetax** bestia. Oñatiarrak bixak eta oso ezagunak herrixan. Itxuraz, izaeraz eta berbeta-moduz zihero desbardiñak izan arren, lan inportantia egin euen, bakoitzak bere erara, kofradixiaren historixan. Don Migel 1920ko hamarkadan hasi eta eta 1956. urterarte izan zan maiordomo. Don Jose Maria, berriz, 1957tik 1981 bittartian: bigarren tarte horretan Korpus-egunak urte kritikuak bizi izan zittuan, frankismuaren akaberan eta transiziñuaren hasieran bereziki. Goiko argazkixaren erdixan dakotzue Don Jose Maria Zazpibidetaxo bidekurtzian 1960 inguruan eta behekuaren eskumakaldian Don Migel apostolox eta dantzariyekin Santa Anaxo elizpeian 1950 inguruan dozena bat urte lehenago.

J. E.

Milla esker argazkixak eskuratu doskun Iñazio Irizarreri!